

29. Iparra Hegoa

MAITA
SUNARENA

HANGO
HEMENGOA



IPARRA
HEGOA

Herri bestak
bizi behar du!



MARTXOAREN
9TIK 15ERA

29. Iparra Hegoa

Herribestak bizi behar du!

Badira kasi 30 urte hasi ginela Iparra-Hegoa aste kulturalarekin. Helburu argia du besta honek, Euskal Herriaren zatiketa administratiboa gaindituz mugaz aldebietako euskaldunak batzea. Auzolanaren soinu eta usaina du gure bestak. Badira euskara sustengatzeko sortu diren besta erraldoiak (Kilometroak, Herri Urrats...), kirola egiten ospatzen ditugunak ta agian munduan parekorik ez dutenak TipiTapu KORRIKA hamar egunez, Nafar guztiak biltzen dituen Baigorri, usain zaharreko ihauteri, libertimendu, kabalkada, peñak, konpartsak, blusak eta piratak... txoznak, gazte topagune eta hatortxuak, badira futbol zelaiak bete dituzten bestak, eta beteko dituztenak, badira sortu berriak Izpegikoak eta 30 urteko EHZ-k, gaztetxeetako ehunka ekimen eta bardoak kantari Nafarroa Arenan.... Guzti hauek, alta, badute komunean zerbait, izerdia ez du batek bakarrik botatzen eta bere sakela nehork ez du betetzen. Milaka herritarrok ahalbideratzen dugu hau. Badugu zer hobetu, zer aldatu eta zer hausnartu. Akatsak akats, besta hauek, gure herria eta hizkuntza bizirik mantentzeko lanabes ezinbestekoa dira. Herrigintzaren altxor bat, zaindu beharrekoa.



MARTXOAK 1, igandea
Urruñako Berttoli Elkartekoen
bisita Segurara
12:30. Kantu poteoa *Kuxkuxtu*
txarangarekin

MARTXOAK 6, ostirala
Urruñako Xaia ostatuan Ekilore
taldearen kontzertua

Martxoak 7, larunbata
Antzuola, Gipuzkoa
Gipuzkoako mus txapelketako finala

Martxoak 28, larunbata
Billabona, Gipuzkoa
Euskal Herriko mus txapelketako finala

ASTE NAGUSIA

Segura

MARTXOAK 9, astelehena

11:00. Urruñako ikastolako haurrei harrera eta hamaiketakoa. Ondoren herriko bisita gidatua Ardixarratik.

14:30. Segurako eskolara bisita eta elkar ezagutza jolasak.

17:00. Buruhandiak eta erraldoiak plazan.

19:00. Hitzaldia *Musika eta animazioa, txosnak eta tabernak*.

Gonbidatuak: Urko Uriarte Larrinaga (Bilboko Altxaporru konpartsakoa), Lukas Hiriart (Baionako besta alternatiboa), Pello Aranzbal Beitia (Iparra Hegoako kidea).

Ondoren afari legea Elorrin gonbidatuekin.

MARTXOAK 10, asteartea

9:00. Haurren gosaria.

10:00-12:00. Talo tailerra eta jolas librea, Urruñako eta Segurako umeak elkarrekin.

12:15. Segura irratian elkarritzeta.

13:00. Bazkaria Elorri Elkartean Urruñako eta Segurako haurrak elkarrekin.

14:30. Dantza gidatuak Kiki Bordatxoren eta Joseren eskutik. Urruña eta Segurako eskolako haurrentzat.

16:15. Txokolate beroa denentzat.

17:00. Urruñako haurrei agurra.

19:00. Hitzaldia Jaialdien garaian. Gonbidatuak: Kattina Haran (EHZ), Migel Egibar (Kilometroak) eta Amets Aranguren (musikaria). Ondoren afaria gonbidatuekin.


MARTXOAK 11, asteazkena

18:30. Jai Ereduaren inguruko mahai ingurua Euskal Herriko txoko ezberdinetako gazteekin. Moderatzailea: Jon Telleria.

MARTXOAK 12, osteguna

19:30. Bertso eta kantu poteoa. *Kuxkuxtu* txaranga eta Nerea Elustondo, Eneko Araiztegi eta Amets Arzallus bertsolariekin.

21:30. Bertso-kantu afaria. *Kuxkuxtu* txaranga eta Nerea Elustondo, Eneko Araiztegi eta Amets Arzallusekin. Gai jartzailea: Jon Iturrioz.



MATXOAK 13, ostirala

11:00. Haurrentzako jolasak.

17:00. Etxepareko ikasleei harrera.

19:30. Arkumea bururantzian eta Sagardo dastaketa. Panderojole juntadizoa eta kale animazioa *Kuxkuxtu* txarangarekin.

23:00. Kontzertua: Kiki Bordatxo erromeria. Ondoren *DJ Bull*.



MARTXOAK 14, larunbata

10:00. Sukalki lehiaketa.

11:00. Kale animazioa Baigorriko gaiteroak eta Goierriko zanpantzarrekin.

12:00. Etxepareko ikusgarri ibiltaria.

13:00. GEREZIONDOKO EKITALDI NAGUSIA.

15:00. *Gazte bazkaria* frontoi zaharrean, Etxepareko txarangarekin.

15:00. *Herri bazkaria* karpan, *Kuxkuxturekin*.

18:00. Manifa *Azterketak euskaraz*.

19:00. Taloak eta Euskal Herriko garagardo dastaketa.

23:00. Kontzertua: *Balantza* taldea. Ondoren *DJ Bull*.

**MARTXOAK 15,
igandea**

**11:00. JAIA BAI,
AUZOLANA ERE BAI!**

Mokadutxoak Elorrin.



OHARRA:

- Iparra Hegoako txartelen zozketako zenbaki sarituak bazkal garaian jakinaraziko dira.
- Bertso afarirako, Gazte bazkarirako eta herri bazkarirako txartelak salgai egongo dira:

- Elorri Elkarte (Segura)

ANTOLATZAILEA:

LAGUNTZAILEAK:

- Segurako taberna laguntzaileak
- Elorri Elkarte (Segura)
- Berttoli Elkarte (Urruña)
- Segurako talogileak
- Zaldibiako Udala



SEGURAKO UDALA



EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEA
—
INSTITUT CULTUREL
BASQUE

